

JOAN JUNYENT

www.actuatu.com

ISILTASUN HANDIA

PREBENTZIOAREN KULTURAREN GILTZAK

Isiltasun Handia

Joan Junyent

Egilea

Joan Junyent Dalmases, Valls de Torroella (Bartzelona), 1965. Meatzeetako Ingeniari Teknikoa eta Laneko Arriskuen Prebentzioan Masterduna da. Hamabost urtetik gorako esperientzia du meatze barruan lan egiten, Lanaldiko Buru izatetik Zuzendari-karguraino iritsiz.

Irakurzale porrokatua da, eta libre duen denboran idazle gisa jarduten du.

Liburua

Eldazte eta Meatze eta Prebentzioko Teknikari bitarte horretantxe sortua da liburu honen ideia.


Liburu teknikoaz bete-beteta dagoen alor honetan, beharrezkoa zen *Isiltasun handia*, batere ohikoa ez den ikuspegi batetik azaltzen baitu prebentzioa zer den eta zer esan nahi duen. Historia atsegin bat da, gidariei eta langileei prebentzioa zer den erakutsi eta gai hau haiengana hurbiltzeko asmoz egindako zenbait gogoeta bitxi eta ulergarri proposatzen dituena.

Estres handian bizi ditugun gure bizitzen barruan, jostaketa alditxo bat eskaini nahi dio irakurleari *Isiltasun handia* honek, zehaztasuna eta zorrozatasuna galdu gabeko arrazoibide eta gogoeta batzuek eraginez, ordea.

Isiltasun handia kontakizun hau meatze batean gertatzen den lane-ko istripu batez baliatzen da; baina hemen esaten denak berdin balio du beste edozein istriputarako ere, trafikoko istripuetarako batez ere. Irakurketaren lagungarri gisa, ariketa jostagarri bat proposatzen dizugu: imajina ezazu beste istripu bat eta, irakurketan aurrera egin ahala, gara ezazu zure irudimenezko istripuaren historia hori hemen irakurriko duzunaren parez pare, bien arteko loturak eta berdintasunak bilatuz, izango baitira, zalantzarik gabe.

Gozatu, irakurriz!

Egileak



Isiltasun Handia

Istripu bat zazpiehun metro lurrazpian

1



Astelehena, asteartea, asteazkena... Egunak ibai bare baten modura joaten dira, harik eta une batean, kolpetik, ustekabe batek iratzartzera behartzen gaituen arte.

Gaur bertan ere ez dakit nola sumatu nuen orduan egun hura besteak ez bezalakoa izango zela, baina banekien. Gauza bat baizik ez dut gogoan: ohi baino ilunagoa eta goibelagoa zirudie-la gauak. Eta hotza sentitzen nuela.

Ordubete hortxe-hortxe falta zen eguna argitzen hasteko.

Aparkalekura iritsi nintzen, eta han zeuden denak, inoiz baino isilago, inoiz baino geldiago, baina errealitate gordinak bat-batean esnaturik denak.

Plaza osoa jendez beteta zegoen, jende hark berez txanda eman eta, lanaldia bukatuta, lotara joan beste ardurarik izan behar ez zuenean.

Orduan, hain zuzen, ez zitzaidan zalantzarik geratu: lana geldituta zegoen. Eta lana gelditzeak banekien zer esan nahi zuen: heriotza-istripuren bat meatzean...

Zigarro-muturrek argi egiten zuten zokorik ilunenetan, nire adiskideak malkoak ezkutatzen ari ziren lekuetan. Eta pauso astitsuz, sonanbulu gisakoz mugitzen ziren, nora jo ez zekitela.

Nora joanik ez zegoen orain. Dagoeneko berandu zelako, **orain. Orain** zer eginik ez zegoen dagoeneko.

Iluntasuna eta isiltasuna ziren nagusi alde guztietan. Eta samina eta pena.

Ahots beheran mintzatzen ziren itzal taldetxoak. Meatzariak kalekoz jantzita, meatzari-kaskorik eta botarik gabe, adorerik eta pozik gabe. Meatzarien abestirik gabe.

Erraldoiak negarrez, bakun, lurrari erraiak ateratzeko gai zirenak, hain lan gogorra maitatzen zutenak, zentzugabeko galera batek bihotz-bihotzetan jota.

Beren lankide batek ez zuen irribarrerik gehiago egingo...

Autoa adorerik gabe aparkatu nuen, eta geldiro abiatu nintzen, hurbilen neukan talderantz.

Hiru galdera bururatzen zaizkizu halakoetan:

Zer gertatu da?

Nola gertatu da?

Nori gertatu zaio?

Baina hiruren artean bat da batez ere arreta erakartzen duena:

Nor?

PHorrexen erantzuna delako samingarriena. Erantzun horrek pertsona jakin bat, aurpegi bat, familia bat, adiskide bat zehazten delako... **Nor?**

Gogoa hegan joan zitzaidan, eta oraindik ere atzo balitz bezalaxe gogoratzen dut enpresan sartu nintzen eguna.

–Aurrera, Álex. Itxi atea eta eseri, mesedez.

Nagusiak lehendabiziko aldiz nahi zuen nirekin bakarka hitz egitea. Gauza asko nituen entzunak haren gogortasunaz; horregatik, bada, beldurrez eseri eta zain geratu nintzen.

–Alex, jarri arreta eta entzun iezadazu zer esan behar dizudan, mesedez, garrantzi handiko gauza baita esan behar dizudana.

Listua irentsi nuen, eta erradarra bezain adi geratu nintzen, geldigeldi.

–Gure arazorik handiena –jarraitu zuen esanez nagusiak–, istripurik izan gabe lan egitea lortzea da. Lur azpian mugitzen gara, makina handiak erabiltzen ditugu, eta arriskua esan nahi du horrek; horregatik arretarik handienaz mugitu behar dugu beti. Begira gure estatistikei: urtean pertsona bat hiltzen da meatzean, eta, inoiz gertatzen baita, urteren batean hildakorik ez badugu, hurrengoan bi hiltzen dira–nagusiak isilune bat egin zuen, esan zizkidanak ongi neurtu nitzan; eta betirako geratu zitzaizkidan buruan iltzatura–.Horregatik, bada, kopuru horiek behin betiko ezabatzen laguntzeko ahalegin guztiak egin ditzazula eskatzen dizut, arren eta mesedez. Hori lortzen badugu, horixe izango dugu saririk hobere-na.

Nagusiaren hitz gogor haiek tatuajeaz idatzita geratu zitzaizkidan garunean; era berean, hari eta haren gogortasunari ez baina, beldurra istripuei izan behar zitzaizela adierazten zidaten. Hori zen

gure erronka, inondik ere. Istripuak bilakatu ziren nire etsaia. Une hartatik aurrera nire nagusiak izendatutako helburuak betetzen jarri nuen nire arreta eta lehia guztia, inolako erresalburik gabe.

Istripuak dira etsaia.

Baina gogoan dut, orobat, nola aldatu zidan hizketaldi labur hark gauzak ikusteko nuen ikusmoldea.


Hurrengoa nor izango ote zen pentsatuz ibiltzen nintzen meatzean. Batekin hitz egiten nuen, besteari laguntzen nion..., eta galdera bera bururatzen zitzaidan askotan: "Hau izango ote da hurrengoa?". Baina berehalaxe baztertzen nuen burutapen hori, errealitatea hura izango ez zelako itxaropenez.

Harik eta egiaz errealitatea hura ez zela ikusi nuen arte. Jantzigelan gertatu zen hori, meatzetik kanpo. Bizarra mozten ari nintzen, dutxan sartu aurretik; berriro etorri zitzaidan galdera eta zalantza: "Nor izango ote da hurrengoa?", ispiluan nire atzetik dutxetarantz edo haietatik itzuleran biluzik zetozen lankideen isla ikusten ari nintzen bitartean. Haietako zein izango ote zen?

Ispilu gandutuak irudi lauso bat itzultzen zidan, eta errealitate desitxuratu bat eskaintzen zidala iruditzen zitzaidan, harik eta, une horretantxe, errealitatea egiaz geure begiok desitxuratzen dutela ohartu nintzen arte. Bakoitzaren begiek kanporantz baizik ez dutela begiratzen, ikusi nuen, eta ikuspegi baztertzaila izaten dela askotan ikuspegi hori. Zergatik ez zen izango hurrengoa lehen ilaratik begira ari zitzaidan eta nire isla baizik ez zen eta bizarra aparrez beteta zeukan buruhandi hura? Izan zitekeen, jakina izan zitekeela.

Ez nahasi etsaiz.

*Zure ahaleginak antzuagoak izatea
baizik ez duzu egingo horrekin.*



Istripuak dira etsaia.

Ispiluak irakatsi zidan errealitatea ikusten, hark erakutsi zidan errealitatea, denak baikeunden han, ispiluko irudian, baita NI ere. NIK ere babestu egin behar nuen, beraz.

Nor uste nuen bada nintzela ni, NEURE burua babestu gabe besteak babestu nahi izateko?

Une horretantxe sortu zitzaidan, nire baitan, jokamolde berri bat, ispiluan ezagutu nuen NI hura inoiz bazterrean utziko ez nuena.

Ekintzak norbere baitatik abiatzen dira ia beti...

Bat-batean errealitatera itzuli nintzen berriro, gau hotz hartan.
Nor? Nor ote zen oraingoan?

Baina galdetu aurretik ere beldurraren hozkada sentitzen duzu. Baietz, egia dela lehendik badakizuna, norbait hil dela erantzungo ote duten beldurra. Edo beste beldur bat, handiagoa, gorputz guztian inurriak bezala zabaltzen zaizuna, norbait hori zure adiskideren bat ez ote den, gehiago harekin hitz egin ahal izango ez duzunen bat. Pertsonak, izan ere, hirutan banatzen dira: adiskideak, ezagunak eta besteak. Eta haien heriotzak ez dira neurri berean samingarriak.

–**Nor** izan da?–galdetu nuen ahots-hari mehe batez, ageri ez den irribarre hori, **bere izena** duen irribarre hori, bilatzen nuen bitartean.

Batzuen aurpegi serioak, eta besteen aurpegi saminez deseginak nahikoa seinale argiak ziren. Begirale ona izatea aski zen, ikusteko.

–**Durán** –erantzun zidan norbaitek–.Sentitzen dut, adiskideak zineten, uste dut.

José Durán Costa, hogeita hamalau urtekoa, ezkondua, alaba bat eta bizitza oso bat bizitzeko.

Horra istripua izandako nire adiskidea. Hori zen biharamuneko egunkariko inizialek ezin ezkutatu ahal izango zidaten izen osoa.

Eztarria eta bularra estutu egiten zitzaizkidala sentitu nuen. Puztu eta puztu egiten den eta barrutik estutzen dizun bola bat. Halako oinazea ematen dizu non ezin baituzu ez hitz ez negar egin, eta arnasa hartu ere ozta-ozta. Amorrua eta karranpak zabaltzen zaizkizu gorputz osoan, hezurretan hotza sartzen zaizu, eta ez zara gauza zer egiten duzun kontrolatzeko. Bizitza geldiroago dabilkizu, eta gauzak ametsetan bezala gertatzen dira, ez dirudi egiazkoa... Ahotsak, zaratak... lauso bihurtzen da dena. Burbuila batean bezala zaude, mundutik aparte. Zeren lehenengo unean ez baituzu onartu nahi dagoeneko erremediorik ez duena.

Gertatu den istripuak ez du erremediorik dagoeneko.

Erremediorik ez dagoenean alferrik da soluzio bila aritzea.

Airean zintzilik banengo bezala joan nintzen bulegoetara, arrapaladan eman zizkidaten azalpenak kontuan hartu gabe.

Goizeko hirurak eta hogeietan hil zen Durán, bularra zapaldu-ta. Gidatzen zuen zulatzeko makina, Jumbo bat: irauli egin zen, eta azpian harrapatu zuen Durán, gorputz erdia kanpoan zuela. Bi mekanikarik lagundu zioten; bizkor bai bizkor ohatze batean hartu eta atera zuten, baina berandu zen dagoeneko. Guardian zegoen sendagilea, abisua hartuta, meatzeko sarreran zegoen zain, baina Duránen bizitza bazihoan, erremediorik gabe. Alferrik izan ziren laguntza guztiak, eta hantxe eman zen heriotza-agiria. Duránen gorpua tanatorioan zegoen.

Bulegoetarantz nindoala, Duránen historia gogoratu nuen.